

# ANAITASUNA

261. zenb.

1973.eko irailaren 30ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## Salvador Allende, Kaupolikan berria



Milaka urtez zapalduko ketxua zahar bat bezala itzarriz zinen lozorrotik; herriaren beso ahulek lurretik altxatu zintuzten eta oihu egin zenuen:

«Hemen nauzue, amets dugun Txile hori berregiten laguntzeko. Mediki laguntzan, heziketan\* eta janaritan haur guztiei aukera\* berdina emango dien Txile hori. Gizon eta emakume, nork bere sormena\* loratzeko aukera ukan\* dezan, ez besteen aurka, guztion bizimodu hoberako baizik» (S.A.).

Zapalduen begi tristeak argitzen hasi ziren, langileen zango nekatuak sendotzen; eta Andes mendiek gailurrez gailur askaziogintzaren\* berri ona zabaldu zuten.

Ezeduki\* eta baztertuen itzaropen zama\* astuna sorbaldaratu zenuen, eta, Kaupolikan\* berri baten antzera, bide malkarrari heldu zenion, agindutako lurraren bila.

Baina ilunpeko semeak maltzurak dira. Osinak haitzurtu, murrailak eraiki dizkizute bidean. Indarkeriazko orma\* gogorraren kontra inguratu eta hertsatu\* zaituzte, eta zeure herriari esan zenizkion hitz esperantzakor

haiez mendeku\* hartu dute García\* Hurtado de Mendozaren jarraitzaile leialek. Zure umezurtz penatuek lurraren erraietatik ateratzen duten metalaz mututu dizute ahoa betirako ilunpetarrek.

Zure ezpainak isildu diren arren, odola —Txile osoa gorritu duen odol hori— ozenki\* mintzo da.

«Inoiz ez bezalako sinesmena behar du gizonak bere buruarengan, eta mundua berregiteko, bitzta berriztatzeko duen ahalmenean» (S.A.).

Kaupolikan berrien hazi bihurtuko den zure odolak, muga berri bat ezarri du itzaropena eta etsipenaren\* artean. Eta zure odolak, Salvador, noizbait argituko duen egun atzeratuaren zain jartzen gaitu.

X. M.

dezan, daian  
dizkizute, deutsuez  
dizute, deutsue

zenion, zeuntsan  
zenizkion, zeuntsazan

# "AUÑAMENDI" ARGITALDARIAREN OHARRA

Orain zenbait aste, Donostiako «Auñamendi» argitaldariaren gandik, eskutitz batekin zetorrigun ondoko ohar hau jaso genuen.

Barka biezagu Beñat Estornes jaunak udako geure atzerapen hau. Ohar hau argitaratzean, bukatutzat ematen dugu, hemen aipatzen den arazoa.

## ANAITASUNA

Anaitasunaren 257gn. zenbakian Olako izengoitiz esaltzen dan batek bide artzen du Auñamendi Argitaldariari irain egiteko eta ezer gutxi dala bide. Guziz bestelakoa da, gai bera ikutuaz, Armendaritzen irizpide neurritzkoa eta bere eskukoa Olakoren arinkeri eta axolakearen aldean.

Armendaritzek Argitaldariai zabalpean gisa Euskaltzaindiaren euskal izenen Izendegia banatu duela jakinarazten die irakurleeri, eta aitortzen du Argitaldariaren lana euskerazko izenen alde. Millaka ale asko banatu da dubarik. Igorpenak Argitaldariaren gain izan dira. Baiña aldi berean lau orridun plama bat sartu zan, eta bertan artzen zan, ez pasarte bat, Olakok gezurrez dion bezela, H arazoarekiko lerroalde osoa baiño.

Argitaldaria ez zan ez alde ez kontra atera. Gai orretaz Unamunoren iritzia zekarren, bertan gaur egunean gertatzen danari egoki baiño egokiago dagozkion irakaspenak badituela uste izan zuelako. Gertakari onekin Argitaldariai arrazoa ematen dio Euskaltzaindiari euskal izenei dagokion arloan eta gaiñera diruz lagundu egiten dio, eta ez dio ematen ortografiarekikoan baiña ez dio kentzen ere.

H-ri buruzko gaia benetakoa eta ardurazkoa dala uste izan du, izkuntzari kalte aundia egin diolako, euskaltzaindiko jaunak alde aurretik antz eman bear zioten berezpena sorturik. Ez zan zuurki jokatu, bai ordea arinkeri aundiz eta erabiltzailleen gutiespenez. Auñamendi Argitaldaria, beste batzuekin batera, Euskaltzaindiagana jo zuen, ortografiarekiko naaspilla bukatu zedin eskatuz eta erabakibide baten billa, esaten dan leketan H onartua izan zedin eta bearbada erabilpenezko arrazoa duenean, baina letra bizkarkaririk gabe izkuntzan.

Gai oni buruz berezi bear dira H atsezkoa eta H ixilla, bizkarkaria (parasitua). Bizkarkariak txarrak dira nun nai: gizartean, eta baita ere alfabetoan. Euskaltzaindiak ez zuen iñoiz H ixilla erabili, baiña bai H atsezkoa. Euskaltzaindiak oraindik ez die erantzun Argitaldariai, baiña bai ortan zer ikusirik ez duen eta ezer eskatu ez zuen lagun bati.

Olakok auzitara dakarren K-ren kasua ez dator arira. Ez da letra ixilla, ez da bizkarkaria. Gurdia bere bidetik ateratzea da ori, ontzitik kanpora pix egitea ez esateko.

Auñamendik atsezko H erabili du, erabiltzen du eta erabilliko du, M, B, K, Z eta T erabiltzen dituen bezela, bakoitza bear dan tokian. Gaurko egunetan ez du edozeiñek saldu gabeko irizpidea, eta begira, Olako jauna, nola dakigun arrazoa ematea Euskaltzaindiari baduela uste dugunean eta kentzea ere bai oker ibilli dala uste dugunean. Zuk, irainik eta zozokeriarik gabe, oker gaudela erakusten badiguzu, bereala zuzenduko dugu. Joera berdiña dugu Unamunorekin eta beste edozeiñekin. Batzutan bat gatozke, bestetan ez, baiña ¿artalde egin? Ez pentsatu ere.

ZUZENDARIA



Aurrera, irakurle!

Hemen gaituzu EUSKALDUNTZEN 3. honekin, zenbait egiteko asmoz, euskaldunok geure hizkuntza nola ikas, zabal eta irakats jakin dezagun.

Lehen eta bigarren liburuei egin zaien kritika gogoan edukirik, hirugarren hau ateratzera ausartu gara.

Liburu hau, lehen eta bigarren EUSKALDUNTZEN ikasi dutenentzat edo oinarrizko alfabetatze bat egin nahi dutenentzat egina da.

Liburu honek hamalau bat ikasgai ditu, eta bertan azaltzen dira esaldi subordinatu gehienak. Arras ongi azaltzen dira esaldiok: ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu; baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, irudiak, eskemak eta abar agertzen dira. Bigarren mailan bezala. Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitzak hizkuntzaren egiturak erabiltzeko behar ditugu, eta berek daramate egituren bizia. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontuan ukan dugu haien **noiztasun** eta **maiztasuna**.

Ba ditu liburuak istorioak eta elkar hizketak ere. Hizkuntzak eguneroko tresna bat izan behar duenez gero, haren zerbitzua agerian jartzeko ipini ditugu istorio eta elkar hizketok.

Pertsonaiak, istorioak eta hiztegia, arrunt arruntak izan daitezen saiatu gara.

Ikas ezazu zeure hizkuntza. Hor duzu prest EUSKALDUNTZEN Hirugarrena.

Zuzenbide honetara eska dezakezu: «EUSKALDUNTZEN», Pelota 4-1.º, Bilbao-5.

## ANAITASUNA Bizkaia Hamabosterokoa.

**Zuzendari ordezkoi:** Imanol Berriatua.

**Bulegoa:** Pelota, 4-1.º - Bilbao-5.

**Imprimatzaile:** AMADO, Mazarredo, 35 - Bilbao-10.

**Moldatzaile:** RALI, Particular de Costa, 12-14, 3.º - Bilbao-10.

**XXI. urtea.**

**D.L.:** BI-1.753 - 1967.

# MATEMATIKA HIZTEGIA

Donibane\* Lohitzunetik heldu berria naizela, aipatu egin nahi dut nolabait, han ukitu\* genuen zenbait puntu, jendeak hango berri ukan\* dezan.

Ez naiz antolaketa lanen kritika egiten hasiko, ezin hobeak izan biltziren; eta neuri dagokidan arloa aztertuko dut.

Goizeko hitzaldietara, nolanahiko gaiei buruz izanki,\* era guztietako pertsonak biltzen ginen. Beharbada horregatik, hitzaldi hauk\* ez ziren, guk nahi genukeen bezain sakonak izan; baina, hala ere, onuragarriak\* izan zirenik ez dut uste inork ukatuko duenik.

Lan konkretuetarako, arratsaldeko mintegiak\* antolatu ziren. Honelako mintegiak niretzat gauza berri zirenez gero, zezenek harra-patu nindutela esan nezake, ez bainengoen guztiz gerturik\* horretarako. Hala ere, matematika arloa aztertzen duten batzuk, mintegia prestatzen arduratu ziren. Berezi Txillardegik, matematika liburu batzuk idaztean erabili ukan duen hiztegia denen aurrean aztertu zuen; eta hiztegi honen ikertzeari\* lotu gintaizkion hurrengo egunetan.

## LIBURU BIZIEN BEHARRA

Euskal Unibertsitatea bukatu zeneko, matematika hiztegi hori guztiz azterturik zegoen. Nik, crain, hiztegi honek ukan lezakeen garrantzia aipatu nahi dut, haren sortzean parte hartu dutenen erlitzia kontutan edukirik.

1. Hiztegi hori, premia bizi batek sortua da. Matematikari buruz euskaraz liburu bat idaztean agertu diren premiei, erantzun bat eman zaie. Gaur egun egin ditzakegun hiztegiak, multzo nagusi bitan banatuko nituzke: hilak, edo besterik gabe pertsona batzuen burutik sortuak, baina inongo liburutan erabiltzen ez direnak; eta biziak, liburu batzuk egitean halabarrez sortuak, eta, beraz, erabiliak.

Azken hauek, erabiltzean dute beren balio eta indar guztia. Sortu bezain laster erabiliak, eztabaidatuak eta berrizatuak direlako. Erabiltzean, jendeak beretu egiten ditu, edo behintzat egin ditzake; eta jendeak asimilatu dituenean, orduan esan dezakegu, benetako hiztegi bat dugula.

Nik aipatu ditudan hiztegi hilek, ez dute baliorik. Haien premiarik ez badugu, guztiz alferrikakoak direla esan dezakegu.

2. Hiztegi hau, bai matematika eta bai hizkuntza arloan trebeak diren batzuek eginga da, ez baita aski\* hizkuntza ondo menperatzea, hiztegi tekniko baten oinarriak prestatu ahal izateko.
3. Hiztegi hau talde lanean sortua da, denen erlitzia entzun ondoren onhartua.
4. Hiztegi hau hitzarmen\* gisa\* sortua da, hots,\* denek era berean erabiltzeko asmotan. Puntu honetan, berritua ere, batasunaren beharra argi ikusten da. Talde lanetara sartu baino lehen, alde batera utzi behar ditugu geure aurreritziak,\* lan onuragarri bat bururatzeko.

Hiztegi honen apologia egin ondoren, ba dirudi, lan hau onhartu besterik ez dugula egin behar. Hala ere, lehen esan dudana bezala, hiztegi hau ez da benetako hiztegi baten hazia baizik. Hautatu diren hitz eta egiturak,\* ikastolatan eta bizitza arrunteko\* gorabeheretan erabili behar ditugu.

Horretaz konturaturik, ikastolentzat liburuak prestatzeko programate bat ere egin genuen. Beraz, hiztegi horretan onharturiko hitzak eta egiturak berehala erabiltzeko asmoa dugu. Batasunerako ere bide bat zabaltzen dela, argi dago. Han batu ginenok, euskal herri gehienetakoak ginen. Mintegi hartan ba geunden behintzat nafarrak, giputzak, lapurtarrak, zuberotarrak et bizkaitarrak.

## OHAR BAT

Neuri dagokidanez, ba dut oraindik esatekorik. Azken urte honetan, **ph, y, kh, th** eta beste zenbait letra erabili ukan ditut, gai

teknikoez idaztean. Horretarako nituen zergatikoak, beste artikuluan batean azaldu nituen, eta oraindik zutik diraute.

Donibaneko mintegietan —zenbait erlitzia entzun ondoren, eta gure egoera honetan batasunerako onuragarri izan daitekeekoan—, hitzarmen\* bezala eta urte beteko epean, letra horik\* ez erabiltzean onhartu genuen. Grekotik nahiz beste odozein hizkuntzatatik harturiko letren aldaketa bat onhartu genuen, denok era berean egiteko. Beraz, hurrengo artikuluetan ez ditut letra horik erabiliko.

Hala ere, eta amore eman dudana arren, ene erlitziz, Unibertsitate mailan gai teknikoez idaztean, baitezpadakoa\* da letra horien erabiltzea.

Horrez gainera, argi utzi nahi dut gauza bat: Horretaz erabaki bat hartzekotan, Euskaltzaindiak hartu beharko du. Erabaki hori, orainokoa, hartu gabe dago; baina egunen batean hartu beharko da, batasuna lortu gura badugu.

Beraz, hauzia airean dago.

J. R. ETXEBARRIA

dezakegu, daiegu  
dezan, daian  
ditzake, daiezk  
ditzakegu, daiekguz  
geunden, gengozen

gintaizkion, gintxakoan  
lezake, leike  
nezake, neiko  
zaie, jake



**Emakume, gizonezko eta umeen jantziak**

**Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak**

**Bai emakume eta bai gizonezkoentzako jantzi aukeratuenak, azken modara eginak**

**HURI ZAHARRA**

**"Casco Viejo"**

**BILBO**

# JAKIN

Zuzenbidea: JAKIN, Arantzazu. Oinati. Gipuzkoa.

**Oharra:** Adieraz gurutze batekin ondoko hauetatik nahi dituzun liburuak.

## JAKIN sorta pta.

- |                          |   |     |
|--------------------------|---|-----|
| <input type="checkbox"/> | 1. <b>Ipar Euskal Herria</b> (agortua)            |     |
| <input type="checkbox"/> | 2. <b>Salbatore Mitxelena</b> (agortua)           |     |
| <input type="checkbox"/> | 3. <b>Rikardo Arregi</b> ... ..                   | 100 |
| <input type="checkbox"/> | 4. <b>Kultura eta Fedea</b> ... ..                | 100 |
| <input type="checkbox"/> | 5. <b>Erlijioa hauzipean</b> ... ..               | 100 |
| <input type="checkbox"/> | 6. <b>Gure Ikastola</b> ... ..                    | 150 |
| <input type="checkbox"/> | 7. <b>Koperatibak</b> ... ..                      | 110 |
| <input type="checkbox"/> | 8. <b>Euskal Herriaren atarian</b> (irteteko) ... | 130 |

## JAKIN liburu sorta pta.

- |                          |  |     |
|--------------------------|--|-----|
| <input type="checkbox"/> | 1. <b>Euskal Herriaren Historia</b> ... ..       | 130 |
|                          | F. Zabala  |     |
| <input type="checkbox"/> | 2. <b>Mintzaira, aurpegia: Gizon!</b> ... ..     | 120 |
|                          | J. Hiriarte-Urruty                               |     |
| <input type="checkbox"/> | 3. <b>Iraultzaren hildotik</b> ... ..            | 100 |
|                          | J. Intxausti                                     |     |
| <input type="checkbox"/> | 4. <b>Zezenak Errepublikan</b> ... ..            | 100 |
|                          | J. Hiriarte-Urruty                               |     |
| <input type="checkbox"/> | 5. <b>Kolakowski</b> ... ..                      | 130 |
|                          | J. Arregui, J. Azurmendi                         |     |
| <input type="checkbox"/> | 6. <b>Herriraren lekuko</b> ... ..               | 150 |
|                          | R. Arregi  |     |
| <input type="checkbox"/> | 7. <b>Axular. Mendea, gizona, liburua</b> ... .. | 120 |
|                          | L. Villasante                                    |     |
| <input type="checkbox"/> | 8. <b>Fedearen dinamika</b> ... ..               | 120 |
|                          | P. Tillich                                       |     |
| <input type="checkbox"/> | 9. <b>Kultura proletarioaz</b> ... ..            | 130 |
|                          | J. Azurmendi                                     |     |
| <input type="checkbox"/> | 10. <b>Euskaldunen ipuin harrigarriak</b> ... .. | 130 |
|                          | M. Etxeberria                                    |     |
| <input type="checkbox"/> | 11. <b>Ekaitza</b> ... ..                        | 120 |
|                          | J. M. Satrustegi                                 |     |
| <input type="checkbox"/> | 12. <b>Iraultzaz</b> ... ..                      | 130 |
|                          | J. M. Torrealdai                                 |     |

**Ikus, ikas, ekin JAKIN liburuekin!**

Suskritoreentzat % 30, %40 eta % 50 merkeago!  
 Izena .....  
 Kalea ..... Tel. ....  
 Herria ..... Probintzia .....

- 1.000 pta. aurreratuaz ordainduko dut.  
 Liburu bakoitza ordainduko dut, datozen neurrian.

# Herrenka

Gure Herria ez ezagutzea eta nazioarteko politika-  
 ren berri ez jakitea: hara gure ideologo askoren huts  
 nabarmen bi.

Oraino asko ez dela entzun dugu, geure jokaera pro-  
 letalgo\* bidetik lehendabizi abiatu behar dugula; gure  
 Herria ttikia izanik, Estatuکو beste proletal indarrekin jo-  
 katu behar dugula hautakizun\* bezala; bestela, ez dugu-  
 la zereginik.

Ez naiz ni, proletalگو bide hori gaitzetsiko\* dudana.  
 Baina hori **lehendabizi** jartzea, beste gauza askoren ar-  
 tean, «nazioartekotasun» famatu horren kontra joatea da,  
 gainera Estatu hain ttikia izanik munduko kontzertuan.  
 Zein ote da ttikiago edo ahulago\*: gure Herria, Estatu-  
 ko beste Herri eta herrialdeekin\* konparatuz, ala Estatu  
 hori, nazioarteko kontextuarekin eta munduko potentzia  
 nagusiekin erkatuz?\*

Gure Herria ezagutzearekin batera, non dagoen jaki-  
 tea ere beharrezkoa da, geopolitika, guda estrategia eta  
 ekonomi influentzien harat-honatak zeintzuk diren jaki-  
 tea baitezpadakoa\* den bezalaxe.

Gaztelar herrialdeen mendeetako aginte nagusigoa  
 ezagutzen ote dugu sustraitik? Irakurri ote ditugu Ledes-  
 ma Ramos eta Onésimo Redondoren usteak? Ba ote da-  
 kigu, uste horik\* nola finkaturik dauden herrialde ho-  
 rietan, eta ez bakarrik eskuineko taldeetan, bai eta ez-  
 kerreko talde anitzetan\* ere, berak ohartzen ez badira  
 ere? Ezker talde horietakoek hezketa\* hartu ote dute  
 Estatu barneko lau naziotasun desberdinetaz? Frantziar  
 —eta ez eslabo Herrietan— gertatzen den bezala, ezker-  
 tar horiek ez dituzte\* onhartzen, eskuindarrek bezala-  
 tsu, inperio erresumek\* egindako muga berberak, Leni-  
 nen bideari jarraiki beharrean, Maurras edo Albiñanaren  
 bide berberak segituz?

Hemengo ezker indarrek Estatu barneko antzerako\*  
 beste indarrekin harremanak ukatea\* zilegi\* da; eta, ho-  
 rregatik, ezartzen zaien «ismo» hori ez litzaieko ezarri  
 behar, besterik gabe askotan ezartzen zaien legez.\* Bai-  
 na, horretarako, hemengo indar horiek eskatu egin behar  
 liekete hangoei, Portilla de Padornelo, Fraga eta Pancor-  
 boko atletik barnera ez sartzeko. Eta hori ahantzi\* egi-  
 ten zaie nonbait, eta hemen dabilta soro\* beretan jo-  
 rran. Hor ageri zaie nabarmenki, heldutasuna edo argi-  
 tasuna ments\* dutela.

Hemengo batek bere aitari galdetuko balio, ea, orain  
 37 urte eskuindarrek Estatutua eskaini izan baliete, haie-  
 kin joango ote ziren, tranpazko eta zintzotasunik gabeko  
 galdea eginen lioke. Lehenik eta behin, eskaintza hori  
 errotik ezinezkoa zela jakin behar genuke, eta sekula  
 ere ez zuketela Estatuturik eskainiko.

Saltoka aipatu ditugun baldintza hauei eta beste ba-  
 tzuei gure ideologoak ohartzen ez zaizkien bitartean, he-  
 rrenka\* ibili beharko dugu, bai, herrenka.

D. AMAITERMIN

baliete, **baleutsec**  
 balio, **baleutso**  
 daude, **dagoz**  
 liekete, **leuskioee**

liokey, **leuskio**  
 litzaieke, **litzakioc**  
 zaie, **jake**  
 zaizkie, **jakez**

# Neure lantokitik

## ARABAKO ERRIOXA

Oso atsegina da, Arabako Errioxan dauden herriak bisitatzea: Biaisteri,\* Zieko,\* Bastida... Aintzinako denboretako usaina kale zaharretan, katedralak diruditen elizak, mahastiak, ardo upeltegiak... Eta Arabako herri handi guztietan legez,\* udalak\* egindako igertokiak,\* haurrentzako hainbeste gustagarri hornituak.

Errioxan, bide ertzean agertzen diren herri izenak ikusi gabe ere, behingoa\* nabaritzen\* da zein herri den Arabakoa eta zein Logroñokoa, zein herri dagoen Deputazio deserdiratu\* baten menpean eta zein erdiratu batenean. Arabako herrietan ura dute etxeetan, Logroñokoetan ez. Arabakoetan igertokiak daude, Logroñokoetan ez. Arabakoetan etxe berri asko, Logroñokoetan askotaz gutiago.

Anekdotak gisa,\* Biaisteriko ostatu batetan gertatu zitzaiguna esango dizuet. Gau bi iragan\* genituen, eta gau bietan, ordu batak inguruan, lorik hoberenean geundela, telefonoak jo, nik hartu, eta boz bat entzun nuen, «guztiak zaudete? atea herstera\* goaz» goxo goxo esaten zidana.

## EUSKALDUNAK ARGENTINAN

Aurrera doaz euskal ikastaroak La Platako **Eusko Etxean**, Buenos Airesko **Laurak Bat** batzokian eta Lavalle-eko Kaputxinoen ikastetxean.

Mar del Platan, irail honetan, Euskal Astea egingo dute.

Temperley-ko **Denak Bat** elkartekoek dantza talde bat sortu dute.

La Platan, ikastolako ikasleak boletin bat euskaraz argitaratzen hasi dira. Astero, irratitik, saio bat eskaintzen da, **Euskal Herria La Platan** izena duena.

Eta han bizi den M. Ezkerro jaunak dioskunez, ANAITASUNA ongi hartzen da eta oso pozik irakurtzen.

## ALLENDE HIL DA

Txileko azken gertakariak mugaz bestaldean hartu naute, eta Frantziako aldizkarietan irakurri ahal izan ditut.

Mundua zorionaren bila dabila, sistema politiko berriak xerkatzen.\* Horregatik, interesgarria zen, Allendek egin nahi zuen esperientzia: komunismoa demokrazi bideetik eramatea. Militarrek ebaki egin diote bide hori; eta egitada horren ondorioak ez dira Txilen bertan bakarrik sentituko, hango esperimentuak interes orokor\* bat baitzuen.

Allenderen portaera eta herriotze tragikoak are\* nabarmenago egin dute Txilen gertatu dena.

Orain, Pariseko «Le Monde» egunkarian irakurri dudanez, «Patria y Libertad»eko milizia faxistak kaleen jaun eta jabe dira, eta batetik bestera dabilta, ezker-tiarrak harrapatzen eta hiltzen.

## TXILE ETA GU

Txileko gertakariak irakaspen bat izan behar lukete guretzat.

Txileko berriak irakurtzean, geure Herria etorri zait gogora. Han indarkeria erabili dute, eta hemen ere ho-

rren arriskua dago. Nik ondo ezagutzen dudán ikastola bateko gertaerak abisu bat dira, eta, nahiz eta Txilekoekin desberdintasun ugari eduki, ba dute puntu berdinek:

- Txilen, eskuin muturrekoek erabili dute bortizkeria.\* Ikastola horretan, berdin.
- Txileko kolpearen atxakia, marxistei bidea hertsia\* izan da. Ikastola horretan, berdin.
- Txilen, herriak botoen bidez aukeratutako gobernu desegin dute. Ikastola horretan, gurasoek botoz hautaturiko kontseilua.
- Txilen, herriaren botoz egindako konstituzioa gelditu erazi dute. Ikastola horretan, gurasoek botoz eginiko araudia.\*
- Txilen, Parlamentua deuseztatu\* dute. Ikastola horretan, berdinegin dute gurasoen Batzarrearekin.

Indarkeriak indarkeria sortera\* du. Horregatik dira kondagarri zapalketak, nahiz zuriak nahiz gorriak izan. Jendeak bide egokiak eta baketsuak behar ditu, behar diren aldaketak aurrera eramateko; eta bide horik\* hersten zaizkionean, indarra bakarrik geratzen da, nor bere eskubideak defendatzeko. Beraz, geure gizarte bitartean arrazoia eta ez indarra, bakea eta ez gudu, justizia eta ez zapalketa nahi baditugu, gizonak oinarrizko eskubideak behinik\* behin behar dituzte.

Gizonki jokatu behar dugu; eta gizonki jokatzeko ez da lagun hurkoa zapaltzea, errespetatzea baizik. Euskal Herri zoriotsu bat gura badugu, hemendik hasi behar dugu.

## MANOLO ESCOBAR

Saio bi eskaini ditu Bilboko «Pabellón de los Deportes» delakoan.

Baimen ofizialak lortu ditu, mitologoek ez dute desmitologizatu, ez H-ren kontrakoek eskumikatu:\* eta, beraz, 10 000 lagun aurrean kantatu ditu «Porrompompéro», «Viva España», eta abar.

Honen aurrean, zer esan genezake guk, ANAITASUNAKO zaspikiok?

XABIER GEREÑO

daude, <b>dagoz</b>	zaizkio, <b>jakoz</b>
diote, <b>deutsoe</b>	zaudete, <b>zagoze</b>
dizuet, <b>deutsuet</b>	zidan, <b>eustan</b>
geunden, <b>gengozen</b>	zitzaigun, <b>jakun</b>
zait, <b>jat</b>	

## IPARRALDETIKO BERRIAK

Irailaren\* 15ean, Baionako PAX **deiturikako** zinetokian, arratseko 9 orenetan,\* ZABAL-KANTALDIA izan zen.

Izenak berak erakustera ematen duenez, kantaldi hori, sortu berri den ZABAL iparraldeko aldizkariaren alde egina da.

Orintsu, irailaren lehenean hain zuzen, bere 3. zenbakia argitara eman du ZABALEK. Bertan aipatzen dira:

- Euskal Herriko Eliza.
- Besteakatzeta.\*
- Dixmiuden flamandar abertzaleek oginikako Euskal Herriaren burukari buruzko biltzarre nagusia.

Harpideduna izateko xehetasunak behar badituzue, eska itzazue leku honetara: ZABAL, 31, Bourgneuf, Bayonne.

# Gure Munduko Albisteak

## Liburu berriak

«Txingo», Sabin Irizarrek, GEROn

GERO liburu sortak Sabin Irizar debatar idazle berriaren obra autobiographiko bat eskaini digu irailaren\* lehen egunetan: **Txingo, gertaldi eta ibilkeriak**.

Egileak, gizon heldua jadanik,\* 1936.ean Euskal Herritik ihes egin beharrez, Frantzia, Belgika eta Ameriketan zehar ikusiriko gorabeherak kontatzen dizkigu, denak nobela baten antzera.



Oraindik osorik irakurri ez dugun arren, esan dezagun, nobela hau biziki interesgarri dela, egileak berak gertaerak bizi izateak ematen dion gatz eta piperraz.

Bibliographiarako: IRIZAR, Sabin, **Txingo, gertaldi eta ibilkeriak**, Ed. Mensajero, Bilbao, 1973.

## Nafar Diputazioak Euskaltzaindiari 25.000 pezeta

Aurten Nafarroako Diputazioak Euskaltzaindiari, laguntza gisa, 25.000 pezeta ematea erabaki du, hau da, aspaldiko urteetan bezalaxe. Honela, nafarrena da, gure Herrian euskararen alde dagoen erakunde\* printzipalenera diru gutien ematen diona, zeren\*, daki-kegunez,\* Bizkaikoak urtero 100.000 eta Araba eta Gipuzkoakoak 50.000na pezeta ematen baitiote.

Nafarroako Diputazioak euskararen alde duen **Principe de Viana** sailekoek, aurten bereziki, Diputazioari Euskaltzaindiarentzako urteroko saria 50.000 pezetara altxatzea eskatu zioten; baina, dakusagunez,\* ez diete batere kasurik egin.

Honek, egia esan, harritu egin gaitu guztiz. Euskal gauzez kezaturik, bere kontutik euskal tituluak ematen hasla den Diputazio bategandik, halafede, edozeinek espero zezakeen gehitxoago Euskaltzaindiaren alde; baina ikusi da: ez da horrela. Are\* harrigarriagoa, gainera, non eta honelako gauzak Nafarroan gertatzea. Lehen, zertarako uka, euskaldun guztiok eredu\* bikaina genuen bertako Diputazioan. Baina, dirudienek, honez gero gauzak aldatu egin dira, eta, nabari\* denez, txarrerako.

## Udako Euskal Unibertsitatea Donibane Lohitzunen

Aurten, agorriaren\* 28tik irailaren 8ra, Donibane\* Lohitzunen eratu den Euskal Unibertsitatean, egun pare bat ogoteko parada\* ukan\* genuen; eta bertan nabarituriko\* giroa, zin zinez,\* bikaina zela osorik esan dezakegu.

Bertan egon ginen artean, L. Villasante, L. Mitxelena, A. Irigoyen, Lizundia, Murgiarde eta Jauregiberri andrea etzun genituen, nor bere gaiak irakaspen oso interesgarriak emanez. Ikasleen aldetik, ehun eta hogeit hamar inguru zeuden, Euskal Herriko alde bateko eta besteko unibertsitari gazteak gehienak. Ba ziren, horregatik,\*

T. Monzon eta beronen adineko\* beste gizon heldu batzuk ere, ikastarora ardura handiz zetozenak. Dakusagunez,\* gaztetasuna ez da gazteriari bakarrik dagokion zerbait, gogoan luzaro iraun dezakeen zerbait baizik.

Unibertsital\* ikastaro honek kanpoko zenbait jende ere erakarri zuen bertara. Ba zegoen, gutienez, japonese bat (euskara oso ongi zekiena) eta korsikar\* bat, biak euskal kulturaz kezkatuak.

Ikastaro honek ederki erakusten digu, gure hizkuntza ba dela gauza, goren mailako gaiez aritzeko, eta euskaldunon orain arteko kultur atzerakuntzak sustraiak beste nonbait dituela.

Bihozkie\* gure txalorik beroenak eratzailleei, Jean Haritschelhar jaun euskaltzainari batez ere, guztiak ongi mereziak baitituzte. Ea geurtz\* ere beste horrenbeste edo are\* gehiago eratzten dugun!

## Jon Oñatibia jaunaren portaera ulertezina

AGUR aldizkarian irakurri berri dugunez (73-IX-8), joan den udan Nafarroako Diputazioan egin bezala, orain Arabakoan euskal tituluak emateko ikastaro bat eratu nahi da, J. Oñatibia euskaltzain laguntzailearen ardurapean.

Dakigunez, ikastaro hauetarako, oiartzuar\* irakasle honek ez du Euskaltzaindiarekin inola ere kontatu, euskal erakunde\* honek eman zion «euskaltzain» izenaz bere probetxurako eta haren kalterako ongi baliatu arren.

Jadanik\* ezagunak genituen jaun honen jokabide desegokiak, Euskaltzaindiak onharturiko euskara batuaren kontra, Donostiako erdal egunkarietan argitaratu ditu eta; baina aspaldi honetako portaera berri hau are\* zatarragoa da, Euskaltzaindiak emandako izena, haren kontra jotzeko baitarabila.

Hemen gauza bi berezi beharko lituzke: eskubidea du, hobe\* ez!, Euskal Akademiarekin bat ez etortzeko. Baina Euskaltzaindiaren bileretara inoiz ez doan jaun horrek, bere kontutik, bera ere partaide den erakundeari gerra partikular hori egin aurretik, bere dimisioa edo presentatu beharko luke, euskaltzain, gauza batzuetarako bai eta beste batzuetarako ez, izaten iraun gabe. Nori berea baita zuzenbidea.

## Denda izendegia azkenez argitara doa

Batzuetan txoria, gutien espero genuen leihotik sartzen zaigu etxera. Bai, Euskaltzaindiak ofizialki onharturiko denda izendegia lehenik Bilbo Zaharreko salerosleei eskaini zitzaion; baina berauek, dirurik ez zutelako atxakia aipatuz, ezezkoa eman zioten. Orain, ordea, izendegi horren albisteak jakin bezain agudo,\* iruineko **Banco de la Vasconia** etxeak bere laguntasun osoa eskaini dio Akademiari, obratto hori lehenbailehen argitara dadin.



Izendegi horrek 200 denda, erakunde\* eta ofizio izen inguru daduzka, guztiak ofizialki ontzat omanak, espainolezko eta frantsesezko itzulpenez lagunduak. Horrez gainera, gehigarri gisa,\* liburuxka horrek merkatal\* munduko esaldi praktikoko mordo bat dakar (**pase Vd. sin llamar, horas de oficina, cerrado por vacaciones...**), bai eta propagandako eslogan batzuk ere (**grandes rebajas, lo mejor a los mejores precios...**), askori lagungarri izanen zaizkielakoan jarriak.

Benetan portaera jatorra banku horrena, aurretik pertsonen euskal izendegia eskaini zigunarena.

## Gauza-zaharzakaleak baserririk baserri

Arazoa ez da gaurkoa; baina, guro belarrietara heldu denez, aspaldixeon antikoari eta era guztietako gauza-zaharzakaleak baserrietan zehar ari dira, nekazariei bost txakur\* ttikitari balio historiko eta ethnographiko haundiko tresnak eta gauzak erosten; laiak, gurrpilak, buztariak, zepuak, harlanduak, zurlanduak, antigoaleko plantzak, e. a.

Kontuz ibili beharko dukete\* baserrietarrek holakoekin; eta ez litzateke gaizki ogongo, holako traturik egin aurretik familiako pertsona eskolaturen batekin hitz ogingo balute, ongainatuak ez izateko.

## Noizko Arana-Goirenen omenaldia?

J. San Martinek aurreko ANAITASUNAN zionskenez, guro artean omenaldiak ia eguneroko ogia bezain gauza komunak bilakatu\* dira. Kasik esan daiteke, norberak nahi duenean bero buruari gorazarre\* bat eskain diezaiokeela, horretarako, lagunei esatea aski\* delarik. Umiitasuna ez dugu, segur asko, oso gogoko ogungo\* cuskaldunok. Bitartean, ba daude bestelako gizon batzuk, lan isila, ozkutua\* eta etengabea egin arren, burutik sekula iragaten\* ez zaizkigunak; eta honelakorik askotxo dago Euskal Herrian.

Baina biziak alde batera utzirik, dezagun hiletariko bat hemen aipa: Sabino Arana-Goiri. Dakikegunez,\* politikan ere hain sonatu izan zen gizon honek, cuskararen arloan ere lan haundiak egin zituen. Haren eraginez, cuskal estudioak ardurara handiagoz hasi ziren hartzen; eta zeduzkan garbizale critziak, oro\* har, guretzat gaur egun zuzenak ez badira ere, ezin uka diezaiokegu inondik ere, euskarari bestelako indar bat oman zionik, onerako gehienbat.



Noski, egungo giroa ez dateke,\* politikari zen aldetik inolako gorazarrierik egiteko modukoa; baina, cuskaltzale zen bezainbatean, zergatik ez? Dakikegunez,\* honez gero haren cuskal lan batzuk argitara oman ditu aspaldian **La Gran Enciclopedia Vasca**; eta ez da ahanztekoa, Areilza jaunak, 1965.ean, Bizkaiko Diputazioaren **Vizcaya** aldizkarian haren bizitzaz publikaturiko lana.

Zer, ba? Ez ote diogu holako bat zor Sabinori ere? Eta omenaldi hori publiko ez bada ere, izan dadila pribatua, cuskal kulturaz arduratzen direnen hitzaldiekin odo. Ez dut uste, Hit'er-en arimaren aldeko mezak ontzat ematen diren artean, horretarako oragozpenik legokeenik. Ala bai?

## Salvador Allenderen herioa

Dolorez ikusi dugu Salvador Allende jaunaren hiltzea. Herriak aukeraturiko presidentea, atxakiak atxakia, hain bidegabeki hiltzeak ez du izenik merezi. Txileko militarrek eta burjeseriak argiro erakutsi dute, ez dutela onhartu nahi czkerraren nagusitasunik, beraz lege bidezkoa bada ere. Oraino batzuentzat klar ez bazeuden, horien asmoak oraingoan nabari\* daude.

Txileko Herriari, ordu ilun hauetan, berekin bat gaudela esan nahi diogu: demokrazia zapalduaren alde.

## ZABAL edo iparraldeko gazteen miraria

Eta Iparreko albisteez ari garelarik, diogun,\* Donibane Lohitzu-  
neko Unibertsitatean ZABAL izeneko euskal aldizkariaren 2. eta 3. zenbakiak hedatu\* zirela. Irakurle askok agian\* oraindik kazeta horren berri ez dukeelakoan,\* ZABAL ipar cuskaldun gazte aber-  
tzale eta sozialisten aldizkaria dela esanen dugu.

Ba zeuden orain arte HERRIA, OTOIZLARI eta GURE HERRIA; baina publikazio hauk,\* gehienbat, adineko pertsonen ardurapean zeuden. Orain, aldiz,\* gazteek ba dukete\* beren ideologia eta era guztietako keskak adierazteko bide berri bat.

# ZABAL

Bihilabetekari honen zuzendaria Beñat Oiharzabal da, eta, bertan idazten dutenen artean, P. Xarritton, J. L. Davant, Gehexan Lantziri eta R. Kanblong idazle ezagunak daude. ZABAL, sentimenduz abertzalea da, sozialista joeraz, eta zeharo demokrata jokabidez. Ez genuen uste, eta ba dakusagu\* oker geundela, ipar gazteriak horretarako aldizkari serio bat atera zezakeenik. Egiatzko miraritzat har dezakegu, bai horixe.

Harpidetzeko urteroko sariak hauk\* dira: Ipar Euskal Herrirako, 22,00 libera;\* Hego Euskal Herrirako, 48,00 libera edo 600 pezeta.

Bizirikua: ZABAL, Bourgneuf karrika, 31 (64100 Baiona).

## Berri laburrak

### Euskalduntzen 3.a laster agertzeko

Euskalduntzen methodoaren 3. zenbakia laster agertuko da liburudendetan. Bilboko irakasle talde bat, horretarako, uda osoan ibili da lanean.

### Euskara eskoletan ote?

Espainialdeko Euskal Herriko eskoletan, euskara asignaturatzat ezarriko omen\* da. Horretarako, irailaren\* erdian bilera bat egin dute Donostian euskal probintzien hiriburuetako kultur arduradunek, Irakaskintzako Lege Jeneraleko artikulua betetzeko asmoz.

Programa, textuliburu eta irakasleei dagokienez, batzorde\* honen Euskaltzaindiaren kontseilua hartuko du. Donostiako lehen bilera honetan, hain zuzen ere, Antonio Arrue jaun euskaltzaina egon zen Akademiaren errepresentazioan.

### Plentziako nahaste-borrasteak

Agorrilaren\* 31n, Plentziako enparantzan,\* Txindor dantzari taldea aritu ondoren, Natxo de Felipe kantaria bere saioaz hasi zenean, herriko alkateak, bertara pertsonalki joanik, kantaldia debekatu zuen. Ondorioz, plazan zegoen jende mordo bat protestara hasi zen, bere haserraldian inguruko kristalak eta bonbilak hautsiz. Gizabide gutiko crakusketa honegatik eta puskatua zegoen ordena berriro ezartzeko, goardia munizipalek eta zibilek parte hartu behar ukan\* zuten. Natxo de Feliperi eta Plentziako zortzi mutili multa bana jarri diete agintariek.

### Donostiako «Fiestas Euskaras»ko kantaldiak

Donostian, udaroko «Euskal jaiak» direla eta, **Ez dok Amairu** taldeak, beste lagun batzuekin, beren saioa eskaini ziguten.

Natxo de Felipe bilbotarra, beste bederatzi musikalarirekin, irailaren 15ean bertan parte hartzeak ere ba ziren; baina, asken orduan, ez zitzairen behar zuten baimena eman.

### Herri eta herritarren izen batzordea Donostian

Irailan, Luis Mitxelena jaunaren zuzendaritzapean, Euskaltzaindiak gure herrien eta herritarren izenak aztertzeke duen batzordea,\* Donostian bi\*du da lehenengoz. Dakikegunez,\* talde honen helburua, herriz herri azterketa batzuk egin ondoren, Euskal Herriko hiri, herri eta hiritarren izenak euskara batuan nola diren erabakitzea da.

### ARMENDARITZ

dezakegu, <b>daikegu</b>	zaizkie, <b>jakez</b>
diete, <b>deutsec</b>	zaizkigu, <b>jakuz</b>
diezaioke, <b>deiskio</b>	zezakeen, <b>eikean</b>
diezaiokegu, <b>deiskio</b>	zigun, <b>euskun</b>
digu, <b>deusku</b>	ziguten, <b>euskuen</b>
diogu, <b>deutsagu</b>	zion, <b>cutson</b>
diote, <b>deutsoe</b>	zionskun, <b>inoskun</b> , esaten
dizkigu, <b>deuskuz</b>	zigun (euskun)
geunden, <b>gengozen</b>	zioten, <b>cutsoen</b>
zaigu, <b>jaku</b>	zitzairen, <b>jaken</b>

# "Oihartzunak" kantari talde trebea mintzo zaigu

Ekaitz ondoko uholde baten gisara\* ikusi dugu hedatzen\* kantari hauen lan humila. Bide laburrean historia luzea idatzi dute. Eta gu, esan dezagun, propagandaren interesak sarritan ikusi nahi ez dituen herri ekinaldi isilak biziki biziki estimatzen ditugu.

Izen famatuen txartelik ez daraman\* talde honekin muntatu dugu elkar hizketa hau. Hemendik aurrera irakurleak juzga beza, talde honek merezi duen estimua.

**Galdea.** Orain dela gutti, Lapurdiko partean izan zarete kantatzen, uste dut lehen aldiz, eta hor arras\* ongi hartua izan da zuen izena. Zuek zer giro aurkitu duzue bazter horretan?

**Erantzuna.** Bi ekinaldi izan genituen, Baionan bata eta Arrangoitzen\* bestea. Baionako ferian egindako ekinaldian oso giro eskasa aurkitu genuela esan genezake, hangoa ofizialkeria hutsa baitzen. Arrangoitzen izan genuena, ordea, oso interesgarria eta ederra: hemen behintzat euskaldun sentitu ginen, giroa ere halakoa baitzen.

**G.** Jende askok ozta\* ozta dakite zuen berri. Oskorri, Ez dok Amairu, Oskarbi eta beste kantari eta talde batzuek propaganda gehiago izan dute euskal aldizkarietan. Zergatik da hori?

**E.** Ez dok Amairuk, Oskarbi eta bestek, guk baino fama eta entzute handiagoa hartu dute, hobeak ere izanen baitira. Aipatu dituzun talde hauek beren diskoak dituzte eta guk baino denbora gehiago daramate kantatzen. Gainera, gu Garbeia mendiaren pean bizi gara. Ez dok Amairu eta Oskarbi, ordea, Donostia aldean bizi dira, eta Oskorri, berriz, Bilbon.

**G.** Bizkaitik kanpora atera zaretea\*?

**E.** Bai, Euskal Herriko herrialde\* guztietan izanak gara. Oraintxe berriki\* Zuberoako Atarratzen\* izan gara, abuztuaren 5ean hain zuzen ere.

**G.** Noiz hasi zineten kantatzen, eta non sortu zen zuen taldea? Interesantea da, taldean zenbat zaretan eta teknikaren aldetik nork zuzentzen zaituzten jakitea.

**E.** Bi urte dira, elkartzen edo bilerattoak egiten hasi ginela. Arratiaren bihotz bihotzean sortu zen gure taldea. Zortzi kantari gara; baina beste bostekin osatzen da gizatalde bezala. Teknikaren aldetik aita Juan Jose Arizmendik zuzentzen gaitu.

**G.** Euskal kantua profesionalizatu egin behar dela diote batzuek. Honetaz zer diozue?

**E.** Zeinen\* pozgarri litzatekeen, baldin gure herria kantari profesionalik ukateko\* eran\* balego!

**G.** Honek esan gura\* du, kantua zuentzat ez dela bizibide bakarra, noski.

**E.** Guretzat hauxe da kantua: zorrak sortzeko bide eder bat.

**G.** Nabari\* da, zeuen kantuetan gogoan guzuela Euskal Herriko egoera. Arratiatik begiraturik, nola ikusten duzue Herri honen aurpegia?

**E.** Esan dezakegu, azkenaldiotan, zorionez, batasun bidetan zehar abiatu dela gure Herria; baina oraindino kontzientzia garbi baten premia ere nahiko garbi agertzen da.

**G.** Segur aski,\* zuek ere ba dukezu\* zeuen pentsaera berezi bat. Publikoak nola ikusten zaituzte?

**E.** Bai, taldeak ba du bere pentsamolde bat, bere ideologia bat, bere helburu bat, nahiz eta batzuetan helburu horren betetzea teoria hutsean gelditzen den. Gure kantuetan nabaritzen\* da hobekien gure jokabidearen norakoa. Horregatik, ez dago esan beharrik, Herriak nola ikusten gaituen; eta baldin galde horri erantzun behar bagenio, lehenbizi bereiztasun edo klasifikazio batzuk egin beharko genituzke publikoarengan.

**G.** Euskal kantuan gero eta inportantzia gehiago ematen zaio nola poesiari hala musikari. Zuek bakarrik sortzen ote duzue?

**E.** Gehiena guk geuk sortzen dugu. Herri kantak ere hartzen ditugu.

**G.** Protestako kanta dela eta ez dela, hamaikatto komeria ba dabila hor zehar. Askorentzat garai bateko moda bat zen kanta mota hori; baina egun\* ez luke balioko. Oraingo egunean artea eskatzen da, eta, horretarako, musika zaharretara jotzen dute. Joera hau aski\* ezaguna da batzuen artean. Zuek zer pentsatzen duzue?

**E.** Artea guztiz inportantea da, eta guk onhartzen ditugu autore zaharrak. Geroago eta inportanteago iruditzen zaizkigu. Hala eta guztiz ere, protestako kantuek oraindik garrantzi eta zeresan handia dute.

**G.** 1973.eko Euskal Herri honi zerbait berezirik esan nahi diozue kantuen bitartez?

**E.** Horixe da, hain zuzen ere, gure helbururik handiena: kantuen bitartez Euskal Herri honi zerbait berezirik esatea. Kantuen bitartez Herriaren nortasuna azaldu gura\* dugu. Oraindik lotan dauden herritarrek iratzarri\* nahi ditugu. Ahal dugun neurrian, **Euskal** kontzientzia bat pizkor erazi nahi diogu, **Euskal** izan behar lukeen Herri honi.

Honeraino gure elkar hizketa «Oihartzunak» taldearekin. Jende sinplea, oso sinplea, ez horregatik inozoa.\* Segur naiz, ez zela Zuberoako Atarratzen (Agur, Atarratze!) itzaliko\* gure agurra. Laster entzungo ahal dugu, diskoren batetan, Arratia eskualdeko gazte hauen aire esperantzagarria!

HERRANDONEA

bagenio, bageuntso	diozue, dinozue
beza, beñ	genezake, geinke
daude, da goz	genituzke, geunkez
dezagun, daigun	zaigu, jaku
dezakegu, daikegu	zaio, jako
diote, dinoe	zaizkigu, jakuz



# ARABIZAZIOA

Xabier Gereñok eskatu zidan, Algeriako bilinguismoaz zer bait idatz dezadan.

Lehenik esan beharra dago, hemen bilinguismoaren problemarik ez dagoela, trilinguismoarena baizik, Algerian hiru mintzaira bizi baitira: arabea, berberiera eta frantsesa.

1966. urteko estatistikek darakuskigutenez,\* honela banatzen dira Algerian erabilitako hizkuntzak:

## Bertako hizkuntzak:

Arabea: 9 734 100 bizilagun (% 81,5).  
Berberiera: 2 267 300 (% 17,9).

## Kanpoko hizkuntzak:

Frantsesa: 77 600 (% 0,4).  
Besteak: 23 000 (% 0,2).

Frantziaren denboran, Algeriako hizkuntzek ez zuten ofizialtasunik asko lortu izan. Pariseko gobernuaren menpean egonik, goiko maila guztietan erabilitako hizkuntza frantsesa zen; eskoletan arabea aparteko langai bat zelarik. Frantsesek erlijioaren mintzaira bezala onhartzen zuten arabea. Honetaz gainera, kontuan hartu behar da, eskolara Algeriar gutti zihoala, eta Europarrek arabeari inportantzia gutti ematen ziotela. Beraz, herri xehea, bere hizkuntza eta frantsesa entzunik, mintzaira biok nahasten hasi zen. Berberiarrek herrialdeetan, Kabiliari bereziki, nahaste hau askoz zabalduagoa zen eskualde\* arabizatueta baino, zeren\* Kabiliarrek, beren hizkuntzan idazten ez jakinik, nahiago baitzuten, idazten zèn eta ofizialtasuna zedukàn hizkuntza ikastea. Bestalde, toki askotan, Berberiarrek lotsa dadukate, Arabeen aurrean berberieraz mintzatzeko.

Berjabetasuna\* lortu eta gero, Algeriako gobernuak frantsesa onhartzen du hizkuntza ofizialtzat, eta arabea hizkuntza nazional bezala. Arabizazioaren helburua, arabeari lehen maila ematea da, Algeriak bere nortasuna aurki dezan. Berberierak oraindik ez du ofizialtasunik erdietsi.\*

Arabe hizkuntza aipatzen dugunean, hiru gauza bereizi behar ditugu: Arabe klasikoa, «Koran» liburuan erabilia eta mendeetan zehar aldatu ez dena; arabe modernoa (edo prentsakoa), hitz teknikoz hornitua; eta arabe dialektala, herriz herri aldatzen dena, eta frantsesarekin nahasia. Honetaz gainera, arabe dialektalak ez du deklinabiderik erabiltzen, eta herrialde menditsueta hitz asko berberieratik hartu ditu. Arabe hizkerak honela bana daitezke: Berberiarakoa, Arabiakoa, Siriakoa eta Egiptokoa.

Irratlan hiru emisio sail daude: bata arabez, bestea berberieraz eta hirugarrena frantsesez. Telebistako emisioak arabe modernoz ematen dira. Pariseko ORTF delakoarekin kontratu bat firmaturik, pelikula asko frantsesak dira; baina aurten arabe modernoz ematen da itzulpena. Beste filme eta antzerki asko Egiptotik dator; baina batzuetan frantseseko nahiz Algeriako arabezko itzulpena ezarri behar da, bertako herri xeheak Egiptoko arabea gaizki ulertzen baitu.

Musikazko emisiorik asko bertan antolatua dira, arabe modernoz nahiz dialektalez emanak. Kaleetan denda guztien izenak hizkuntza bietan irakur daitezke, bai eta herrien izenak ere. Egunkariak eta telebistan emandako munduko berriak arabe modernoz eta frantsesez agertzen dira. Irratian egunero arabe modernoa irakasten da; baina, ene ustez, ez da ongi egina, zeren\* gramatika gehiegi egiten baita eta esplikazio guztiak frantsesez ematen baitira. Administrazioan arabea gero eta sartzenago ari da; hor lan egin ahal izateko, arabe modernoa jakin behar da.

Aurten lehen mailako irakaskintza arabe modernoz egiten da. Bigarren mailako kolegioetan literatur gai guztiak arabez ematen dira. Aurten Irakaskintzako Ministerioa gai zientifikoak arabez eman erazten hasi da. Eskola teknikoetan arabearen egoera larriagoa da, irakasle guztiak kanpotarrak izanik. Irakastaldiak frantsesez baizik ezin daitezke eman. Adibidez, lan egiten dudan eskolan, ikasleek astero bi orduz ikasten dute arabea; hor arabe teknikoa ikasten dute.

Unibertsitatean, kolegioetan bezalaxe, filosofia, historia, hizkuntza, zuzena\* eta artea arabez ikasten dira. Aurten gai zientifiko batzuk ere arabez ikas daitezke.

Ba zioen\* Alger-eko irakasle batek: «Arabizazioa behar dugu, gaurko ikasgai guztiak arabez azaltzeko eta frantsestuak izan diren gure jakintsuak herritik ez urruntzeko, beren egiazko problemak uler ditzaten. Hain zuzen, arabizazioaren zailtasuna gauza hauetan datza:\*

- irakasleen eskasia (gehienak kanpotik datoz).
- postu inportanteetan daudenetarik asko frantsestuak edo atzerritarak dira.
- arabe moderno eta tekniko bat irakatsi behar zaio herri xeheari.
- Kabiliarrek ez dute arabea ikasi nahi. Baina hortik beste problema etniko bat sor daitekeelakoan nago.

XANTI LAFITTE

daude, dagoz  
dezadan, daidan  
dezan, daian  
zaio, jako  
zedukan (zeukan), eukan  
zidan, euidan  
zihoan, joian, joaten zen  
zioen, inoan, esaten zuen



## MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245174-Telegrafoa, (MENJRI)  
Muelle de Uribitarte, 15

ELL B O-1

# ETXE BARRENEKO ZENTSURA

# AMODIO BATEN OROITZAPENAK

Entzun dudanez, gure arteko idazle batek egina omen daduka, ez komarik ez majuskularik duen nobela bat. Bai eta euskal editorial batek argitara ez ematea erabaki duela ere. Arrazoirik? Itxura denez, zentsore jaun horien arauera,\* euskal irakurleko gaixoari ezinezkoa eginen litzaioke liburu horren ulerkera. Hori batetik. Ekonomikoki begiratuz gero, berriz, ez litzaikeela batera abantailagarri aterako editorialistei. Hau bestetik.

«Zentsurak erabakitzen du zer den on eta zer txar, zer zuzen eta zer oker, zer komenigarri eta zer ez», Meakaberrik dioskunez (ikus ZABAL, 2. zenb. 48. hor.). Eta halaxe da, nik uste.

Bistan da, delako nobela «zail» hori, ez baitakigu ere on ala txar den, ez dela batera «komenigarri»...

Komenigarri gabe, noizentzat ez den komenigarri galdetu beharko genuke. Euskal nobelarentzat ez ote? Euskal langileriarentzat ez, beharbada? Ala zentsore jaun-nen...

Nik ez dut komarik eta majuskularik gabeko nobela dontsu\* hori irakurri oraindik (nola irakurriko nuen, bada?) ez eta haren egilerik ezagutzen ere; baina egiten zait niri, ba daitekeela halako Joyce-ren kutsu bat, halako Sollers-en eragin bat aurkitzea berarengan. Oker ote nabil?

Behin batean, ba zioen I. Sarasolak «nork idatziko luke Joyce-ren «Ulises»a Agirreren euskaraz?» eta erans-ten zuen «inor ez dela gauza, gaurkoz, holako bide batetik abiatzeko» (ikus **Egunero hasten delako**-ren hitzaurrea).

Nola jakin, ordea, moldiztegiko atek hersten\* ba-zaizkigu?

«Gure hizkuntzaren moteltasuna, eskasia eta atzertasuna, gure hiztegi urria..., gure sintaxis hertsia eta ankazgoratua..., gure jardunaren baserri-kutsu soportatu ezina» (Sarasolak berak jarraitzen zuen) ikusirik (fanatiko ez garen guztiok onhartzan duguna), bistan da entrenamendu experimental oro\* euskal prosarentzat komenigarri litzatekeela». Finnegans Wake eta H bezalako testuak egiten diharduen orok, atek are\* zabalagorik behar litzatekeela.

Ni nago, ez dakit zergatik, ez ote duen euskal pro-sagintzan gure nobela ezezagun horrek etapa berri bat markatuko, etendura bat errepresentatuko, eta gure zentsoreok beldur...

Sasoi batetako kritikalari «progre» eta ausart\* haik,\* nork esanen, egun\* zentsore bihurturik ikusi beharko genituzkeela? **Bon Dieu!**

Nork ukatuko du, zail gertatuko zaiela euskal irakurleei holako testu bat? Itsuenak ere ba dakusa,\* gaurkoz ingeles langileria ez dagoela prest, Finnegans Wake konprenitzeko (burjeseria ere ez, egia esan) ez eta frantsesak H ixiritzeko;\* hala ere, astakeriatzat joko genuke Joyceren literaturgintza zentsuratzea, edo eta bandalis-motzat, Sollers-ek idazteko darabilan makina apurtzea.

Alferrikako gastua litzatekeela lan horren inprimatzea? Batek ote daki!

Dena dela, gure argitarazleak diruaren gutziak\* mugiturik balebiltza, askoz hobe, Retana jauna eredutzat hartuko balute.

PERUGORRIA

Udako beroaz ez dirudi gai serioak oso egokiak direnik, herriaren gogoan uda, eta oporrak bereziki, eguneroko atsekabeak ahanzteko eta denbora alaiki emateko garaiak baitira.

Soinuren bat entzutean, neskatxa bat aiezka eta zuzpirioka jartzen bazaizue, laster jakingo duzue zergatik den: Oporretako amodioaren oroitzapenengatik.\*

Gertaera hau sarritan ikusi dugu geure herrietan. Ez naiz ari sexual kezka, «gaindituak» dituztenei buruz, ez eta nekez oreka\* lortu duten guti horiez ere. Aipatzen ditudan neska politikaz ez dira gehiegi arduratzen, eta, urte osoan zehar senargai bila alferrik saiatu eta gero, oporren zain egoten dira, honela, konturatu gabe, beren hertsapen\* sexualari irtenbide bat emateko.

Azkenean oporrak heltzen direnean, ba doaz taldeka Costa Brava edo lurralde beroren batera. Oporrak iragateko\* tokiari ez zaio gauza haundirik eskatzen, beharbada, hondartza egon dadila, gero herrira belzturik itzultzeko; baina, dudarik gabe, bertan ezagunik ez egotea izaten da eskaerarik garrantzitsuenak.

Heldu bezain laster, nesken artean lehiaketa hasten da, zeinek gizon bat lehenago harrapatuko. Ez dute gehiegi eskatzen; hondartzako lehen mutilarekin nahikoa dute, eta, esperientziarik ezak beldurtuta, beronen besoetan jartzen dira. Huraxe\* bai sua eta paradisia, han bai pizten zaiela beren emetasuna...

Berez desegin baino lehen, oporren bukaerak une onenean moztuko du erromantze hau, eta, moztuaz batera, goratu, sublimatu egingo du, «ezinezko maitasuna» bihurtuz.

Oporrak amets bat beza'a geldituko dira, eta, soinu bat entzutean, han izanen dira zuzpirioka eta oroitzapenak. Orain garrantzitsuenak senargai bilatzea da. Zenbat eta aberatsagoa, hobekiago. Eta, horretarako, moralezko neska izan behar, sexual hertsapena hasi da eta. Aurrerantzean, «berak ez du edozeinekin tratatzen eta are\* gutiago bere burua inoren besoetan jartzen».

AGURNE

zaie, jake  
zaizue. jatzue

Froga ezazu zuk zeuk  
**BYASS 96**  
ona dela izenez eta izanez



**GONZALEZ BYASS**  
JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

# URTXINTXA (I4)

Uda joan berri da. Arratsa orain arinago dator, eta zuhaitzen itzalak luzeago egiten dira. Arratsaldean, aireak urregorritzko hautsez betea dirudi. Haizea, bazterretan, lehen horbelak\* pilotzen hasia da, eta sagar-madariondoetan fruitu ondo helduak mutikoen tentagarri bihurtzen.

Erreka ondoan urritzek\* euren\* lehen hosto horiak erakusten deuskuez sasoi honetan, aleak batzeko ueña heldu dala iragarritz.\*

Zein politikak diren urrak,\* urritzetik, fresko oraindik, batu berriak direnean! Azala ileguri\* xuriska batez estalita dauke, kolorea gaztaina, eta arbolari inkaturik dagoen aldea, esnea bezain zuria. Eta usaina! Gauza gutti eskaintzen deusku Naturak urren lurrin\* goxo garratz horren parekorik.

Goizean, Eneko eta osaba Martin, zakuto bana hartuta, erreka ondoko ur batzuk batzera joan dira. Eguzkia epel dago, ezti, sargoririk gabe. Hara heldu eta... aie ene! zer da, ba,\* abarretatik iheska dabilan hori?

—Ikusi dozu hori, osaba? —dino Enekok aho zabalik.

—Bai, ba dakusat.\*



—Begira, begira! Hantxe dago. Zelako\* buztan luzea daukan, ez da?

—Bai! Urtxintxa bat da. Ikaratu egin dogu, hona etortzean.

—Eta zer egiten eban hemen, ba?

—Gu egitera etorri garena bera. Urrak batu.

—Urrak batu? Zertarako?

—Hara! Negua laster dator, eta urtxintzek eurek ba dakie hori. Orain urrak, intzaurrak, ezkurak,\* pagaziak\*

eta honelakorik bilduko ez balebe, hotzak etortzean zer janik eduki ez, eta hil egingo lirateke, txotxo.

—Ez dabe negua lotan ematen, ala\*?

—Bai, lo egoten dira. Baina lantzean\* behin, tripako zorriek min egiten deutseenean, euren habian daukezan aleetatik jaten dabe, gero berriro ere loak hartzeko.

—Eta udaberrian zer jaten dabe?

—Udaberrian urtxintzek zuhaitzen abarren puntta bigunak jaten ditue.

—Baina oso gogorrak dira, osaba. Egurrezkoak.

—Ez ote dakizu, urtxintzak, saguen eta arratoien antzera, marraskariak direla eta aurreko hortzak oso zorrotz eta gogorrak dituela? Honeei esker, egurra, ur eta intzaurren oskol gogorrak erraz apurtu leikeez.

—Eta udan zer jaten dabe?

—Zuhaitzen kimatxoez\* gainera, era guztietako basafruituak, intsektuak eta txori habietako arraultzeak ja' ditu. Pinaburuak oso gogoko ditu urtxintzak; hortzekin azal guztia urratu eta barruko haziak gustora hartzen ditu.

—Ba,\* Bizkaian orain pinu asko dago; eta urtxintzek oso ugari izan beharko dabe, jateko asko dauke eta.

—Bai, egia! Baina etsaiak\* ere ba ditu. Hortxe dozu, esate baterako, lepahoria,\* urtero hainbat urtxintxa hiltzen dituana. Horrez gainera, lepezuriek,\* arranoek eta ehiztariek\* ere franko garbitzen ditue.

—Puf! Baten bat gelditzen danean ere!

—Ez ikararik izan, txotxo. Urtxintxa emeak urtero bospasei kumetto egiten ditu, eta, beraz, ez dago bildurrik, oraingoz behintzat, euren kasta akaba dakigun.

—Danak horren handiak izaten dira, osaba?

—Ez. Hori ez da oso handia, aurtengo kumetto bat baino. Handienek 25 zentimetro dauke luzeran, 20 zentimetrotako buztan iletsu eta oker batez. Kolorea gorriska edo beltziska izaten da.

—Zer beste izenik dau urtxintzak?

—Euskaraz, izenik zabalduena urtxintxa bada ere, **katagorria** ere esaten deutsoe leku batzuetan; baina txar-to, katuen senidea ez da eta. Frantsesez **écureuil** eta gaztelaniaz **ardilla** deitzen da. Zientzi izena **Sciurus vulgaris** dugu.

## TRAUKO

balebe, **balute**  
dabe, **dute**  
dagoz, **daude**  
dauke, **dadukate** (daukate)  
daukez, **daduzkate** (dauzkate)  
deusku, **digu**  
deuskuez, **dizkigute**  
deutsee, **diete**  
deutsoe, **diote**  
dino, **dio**  
eban, **zuen**  
leikeez, **litzakete**

# Beserritarren eguna Mallabian

Benetan egun zoragarria, joan den abuztuaren 19an, Mallabiko herrian iragan\* genuena. Goizean goizetik, jendea argi eta alai zebilan. Goizeko hamaikak eta erdietan, Herri Meza izan zen. Meza alaia benetan: txistu, bertsolari eta, azkenean, «Aur, Jaunak».

Hamabiak eta ordietan bertso saio bat ukan\* genuen. Lau bertsolari izan ziren: Xalbador, Gorrotxategi, Lazkao Txiki eta Mattin. Beste bi ere, Agirre eta Kepa Enbeita, programan zeuden; baina Agirre ezin zitekeen etor, eta Enbeitari, bertsolari askori gertatzen zaiona jazo omen zitzaion: debekua. Presentatzailea, Inozentzio Olea izan zen.

Trikitiariek hango jendea alaitu ondoren hasi zen bertso saioa. Agurra ematekoan, lau bertso kantatu zituzten, bakoitzak bana. Mallabiko herria eta gazteak gorai patuz. Ba zen beharra!

Lazkao Txiki honela kantatu zuen:

Egun ederra Jaunak eman du.  
Hauxe da egun garbia!  
Oraindik nunbait alde daukagu  
geure Jaungoiko handia.  
Hau eta dena mēzezi dituk,  
bihotzeko Mallabia,  
ouskal kutsuko jende jatorra  
gordetzen dezun kabia!

Gero binaka aritu ziren: Xalbador eta Mattin alde batetik, Lazkao Txiki eta Gorrotxategi bestetik. Iparraldekoentzat, hango egoera eta berrien esplikatzeari izan zen gaita. Hona hemen haien bertsoak:

Xal.: Lendik dakigu, gure semeak  
herritik nola doazan,  
eta herri bat nola egon daiken  
gauza onaren esperantzan.  
Gureak urrun joan dira, ta  
besteak gure artean arrantzan  
euskaldunak beti bizi behar  
baitu inoren morrontzan.

Mat.: Geure herrian huna geienik,  
zer behar dugun ikusi:  
kanpokoak honuntz ba datoz, eta  
bertokoak juan bear ihesi.  
Industriarik ez dugula ta  
han ez ditakela bizi,  
Euskal Herrian jaio umek  
beren Herria bear utzi.

Lazkao Txiki eta Gorrotxategiri, turisten diru ekartzeaz beren eritzia hiru bertsotan eman zezatela eskatu zitzaion. Beren eritzi horik,\* umore aldetik begiraturik eman zizkiguten. Honela:

Gor.: Uda garaia datorrenean,  
hemen turisten demanda.  
Hor gabiltza gu jendetza hoi  
martxa ezin eramanda.  
Diru asko uzten dutela hemen  
sinestea naiko lan da,  
bokadillo bat jaten baitute,  
«coca-cola» bat edanda.

Laz.: Ez dakit nola nik jende horri  
hartutzen hainbat arreta,  
hoiengandikan gure herrira  
ezertxo ez dator eta,  
Ni bezelako flako asko ta  
danak ez daude aseta:  
bide ezkinak uzten dizkute  
tomate potez beteta.

Bertso saio hau umore eta barre algaratan\* joan zen aurrera. Goizekoa amaitzerakoan, arratsaldeko saioa hobe izanen zela esan ziguten bertsolariek, sabela beterik hobeki kantatzen baita. Ez zen arrazoirik falta!

Arratsaldean, bertsolarien aurretik, harri jasotzaileak ukan genituen: Mallabiko Txikito, Leon Navarro eta Ezkurreta. Hamabost, hamalau eta hamar arroako harriak jaso zituzten. Nork pentsatuko zukeen, Txikito bere berrogei eta zazpi urterekin hain indartsu eta pizkor egon zitekeenik! Dirudenez, Berrizko saiheskiak Mallabira ere heltzen dira. Heltzen dira, bai!

Honen ostean,\* bertsolariek kantatu zuten. Han aritu ziren, elkar zirikatzen.

Baina gauza batez harritu ginen guztiz\* ere: gazte gutti ikustez. Zergatik ote zen galdetzera, bertsolariengana jo genuen.

Arrazoi ximpleak baina biribilak eman zizkiguten. Bestelako bertimenduak daudela, gazteak ez direla bertsotan saiatzen, eta, Xalbadoren eritzi, gazteek beste zerbait eskatzen dieketela\* bertsolariei, eta hauk\* ez direla oraingoak, beste zerbait hori eman ahal izateko.

Bestalde, Gipuzkoan nahiko bertso saio antolatzen dela ikusirik, Gorrotxategiri itaundu\* genion, ea nola konpon gintezkeen, Bizkaian ere beste horrenbeste egiteko. «Bertso zaletasuna sorterazteko —erantzun zigun— bertso saioak antolatu behar dira; baina nola antola, uzten ez badute? Honela izanik, dauden lekura joan behar».

Arrazoi handia! Ba dugu, beraz, egin beharra, nola edo hala bete behar duguna.

ERROTA

daude, **dagoz**  
dizkute (dizkigute), **deuskuez**  
genion, **geuntsan**  
gintezkeen, **geintekezen**  
zaio, **jako**  
zeuden, **egozen**  
zezatela, **euela**  
zigun, **euskun**  
ziguten, **euskuen**  
zitekeen, **eitekean**  
zitzaion, **jaken**  
zitzaion, **jakon**  
zizkiguten, **euskuezan**

## GALERIA DEL LIBRO

Gotzon Zaballa

Liburudenda  
erregalutarako gauzak  
Euskal liburuak  
Papeteria

EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, núm. 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

Gehienetan ongi informaturik egoten diren iturrietatik, azken orduan, gure idazkaritzara ondoko berriak heldu dira:

- Nafarroako Diputazioak duen Príncipe de Viana sailean sartu berri den jaun batek, lanean hasi orduko, bertako «plantilla»n sartzea eskatu omen\* du. Haren aurretik 7 urtetan nafar euskal kultura zuzpertzten\* eta birpizten aritu zirenek, aldiz,\* ez omen zuten horregatik inoiz txakur\* ttikirik kobratu, baina bai beren sakeletik luinerako joan-etorriak ordaindu.

- Jendeak aho batez dioenez, Bilboko aurtengo jaiak ihazkoak baino alaiagoak izan omen dira. Inork dudarik badu, guk geuk baietz, agorrilean\* edo, Bilbon jaiak egon direla entzun dugula esanen diogu.

- Lehen, goiko laguntzarik ezaz, gurasoek ordaindu behar zutelako, ikastolak burjesak omen ziren. Orain, aldiz, ba dirudi, Estatuak lagunduko dituela nolabait. Baina ezkertiar fin horien eritziz, Estatuak burjesa delarik, ikastolak lehen bezain burjesak izaten segituko dira.

- Eskola nazionalak, horregatio,\* ez omen dira burjesak.



GURUTZEGRAMA (26)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2		█					█	█		
3				█					█	
4		█					█			
5				█		█			█	
6			█							█
7							█			
8		█		█						█
9					█				█	
10										

HIEROGLYPHIKOA



Joxemielen batela...

EUSKAL SALDA

T	A	N	U	T	T	N	U	T	T
T	R	O	N	P	E	T	X	I	N
A	N	I	L	O	B	N	A	D	O
N	O	S	K	E	S	U	S	A	V
A	U	T	S	I	X	T	H	I	A
N	A	K	S	I	T	X	I	S	K
T	X	I	R	U	L	I	R	U	O
I	A	U	E	W	S	L	A	Z	B
N	L	T	K	U	J	R	M	X	L
A	T	E	R	E	D	N	A	P	A

**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Herrialdea (pluralean). 2. Bokala. Burutik eseki\* (infiniteboan eta alderantziz). Zenbakia.—3. Lapurdiko herrixka. Toki adberbioa. Kontsonantea.—4. Kontsonantea. Nirea. Halaber\*.—5. Andre Mariaren ama. Kontsonantea. Ukatzeko hitza. Kontsonantea.—6. Nota musikala. Jarri, ezarri.—7. Maitea, laz-tana (artikuluarekin). Suari dario (alderantziz).—8. Bokala. Bokala. Jazo (infiniteboan eta alderantziz).—9. Katuak arratoi... ibiltzen dira (alderantziz). Zenbakia (alderantziz). Kontsonantea.—10. Berdintasuna.


**Goitik behera:** 1. Euskal dialektua (pluralean).—2. Kontsonantea. Bokala. Ukan aditzaren forma (Hark ni ikusi...). Lorea (errepikatuz).—3. Etxeak zuritzeko erabiltzen da (artikuluarekin). Ukan aditzaren forma, alderantziz (Nik haiei zerbait eman...).—4. Eduki. Txoria (errepikatuz). Letra baten izena.—5. Emea ez dena. Izana (artikuluarekin). Kontsonantea.—6. Makala alderantziz). Etxeko animalia (artikuluarekin).—7. Kontsonantea. Bokala. Bizkalko herrixka. Barrura joan (infiniteboan eta alderantziz).—8. Bokala. Konprenitzen (alderantziz).—9. Baldintzazko esaldietan aditzari eransten zaion aurrizkia (alderantziz). Kontsonantea. Egunaren ondoko denbora (alderantziz). Kontsonantea.—10. Esaera zahar honen osagarria: **Su gaberik, ez da...** (alderantziz). Kontsonantea. Izan aditzaren forma.

**Goitik behera:** 1. Euskalkiak.—2. S. A. Nau. Lili.—3. Karea. Diet.—4. Ukan. Kuku. Be.—5. Ar. Egona. T.—6. Ahul. Katua.—7. D. A. Ea. Sar.—8. E. Ulertzen.—9. Ba. R. Gau. N.—10. Kerik. G. Da.

**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Eskual-  
deak.—2. U. Urka. Bi.—3. Sara. Han. R.—4. K. Enea. Ere.  
5. Ana. G. Ez. K.—6. La. Kokatu.—7. Kutuna. Gar.—8. I.  
E. Gerta.—9. Bila. Lau. D.—10. Kidetasuna.

Goiko koadro horretan 7 euskal musika tresnaren izenak daude, zuzenean jarrita. Aurkituko ote dituzu? Kontuan hartu behar duzu goitik behera, behetik gora, eskuinetatik ezkerretara, ezkerretatik eskuinetara, edo eta zeharretara, diagonalean ere, egon daitezkeela, bai eta elkarren artean gurutzaturik ere.

KOMUNAK



HIEROGLYPHIKOAREN ERANTZUNA:

Txitxarroa eta berdeia

EUSKAL SILDAREN ERANTZUNAK:

Txistua, ttuntuna, xirula, alboka, danbolina, trikita, pandereia

# HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

### A

ADIN, edade.  
 AGIAN, nonbait, beharbada.  
 AGORRIL, abuztu. (Armendaritzen us-  
 tez, Euskaltzaindiak batasunerako  
 proposatu dituen hitzak, halako ka-  
 suren batean alda daitezkeenez ge-  
 ro, ordal sustraizko abuztu hitzaren  
 ordez, hobe litzateke agorril euskal  
 izen jatorragoa erabiltzea, Leizarraga-  
 ren denboretatik iparralde osoan he-  
 datua').  
 AGUDO, laster.  
 AHANTZI, ahaztu. ahaztu. olvidado.  
 AHOL, makal.  
 ALA, o qué?  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ALEGIA, a saber, es decir, esto es.  
 ALGARA, karkaila, carcajada.  
 AMILDU, precipitado, derrumbado, des-  
 peñado.  
 ANITZ, asko.  
 ANTZERAKO, parecido, semblable.  
 ARAUDI, reglamento.  
 ARAUERA, arabera, según.  
 ARE, oraindik, aún, encore.  
 ARGUDIO, argumento.  
 ARRANGOITZE, Lapurdiko Arrangues.  
 ARRAS, guztiz, oso.  
 ARRUNT, común, corriente, ordinario.  
 ASKAZIOGINTZA, liberación, acción  
 libertadora.  
 ASKI, nahiko.  
 ATARRATZE, Zuberoako Tardets.  
 ATXIKITZE, atenerse, adherirse.  
 AUKERA, oportunidad.  
 AURRERITZ, prejuicio, préjugé. (GI-  
 BELASMO, segunda intención, arri-  
 ère-pensée).  
 AUSART, intrépido, osado, valiente.

### B

BA, bada, pues.  
 BAITEZPADAHO, beharrezko, derrigo-  
 rrezko.  
 BASTIDA, Labastida.  
 BATZORDE, comisión.  
 BEHINIK BEHIN, bedere, gutienez.  
 BEHINGOAN, berehala.  
 BERJABETASUN, Independencia.  
 BERRIKI, recientemente.  
 BESTELAKATZE, alienación.  
 BIAISTERI, Laguardia.  
 BIHOAZKIE, joan zakizkie, joan za-  
 kioez.  
 BILAKATU, bihurtu.  
 BORTIZKERIA, Indarkeria.

### D

DAKIEGU, dakigu nonbait.  
 DAKUSA, ikusten du.  
 DAKUSAGU, ikusten dugu.  
 DAKUSAT, ikusten dut.  
 DARAKUSKIGUTE, darakuskue, erakus-  
 ten digute, orakusten deuskue.  
 DARAMA, daroa.  
 DATEKE, da nonbait.  
 DATZA, yace, está, consista. (Etzar  
 aditzaren forma).  
 DESERDIRATU, descentralizado.  
 DEUSEZTATU, ezereztatu.  
 DIEKETE, diete (deutsee) nonbait.  
 DIOGUN, dinogun, esan dezagun (dai-  
 gun).  
 DITUZTEA, dituzte + a. (A bokala, gal-  
 deetan eranstean zaio aditzari).  
 DONIBANE LOHITZUNE, Lapurdiko San  
 Juan de Luz.  
 DONTSU, dichoso.  
 DUKE, du nonbait.  
 DUKETE, dute nonbait.  
 DUKEZUE, duzue nonbait.

### E

EGITURA, estructura.  
 EGUN, gaur.  
 EHIZTARI, cazador, chasseur.  
 ENPARANTZA, plaza.  
 ERA, modu, gisa.  
 ERAKUNDE, organismo, organización.  
 ERDIETSI, lortu.  
 EREDU, modelo.  
 ERKATU, konparatu.  
 ERRESUMA, reino, royaume. (ERREINU,  
 reinado, règne).

ESEKI, esegi, eskegi, colgar, pendre.  
 ESKUALDE, comarca.  
 ESKUMIKATU, excomulgado.  
 ETSAI, arerio, enemigo.  
 ETSIPEN, desesperanza.  
 EUREN, beren.  
 EZEDUKI, ezeuki, behartsu, pobre.  
 EZKUR, bellota, glande.  
 EZKUTU, izkutu, oculto.

### G

GAITZETSI, condenado, reprobado.  
 GARCIA DE MENDOZA, Kaupolikanen  
 hiltzailea.  
 GELTOKI, gelditoki.  
 GERTURIK, preparaturik.  
 GEURTZ, datorren urtean.  
 GISA, era, modu; bezala.  
 GORAZARRE, homenaje.  
 GURA, nahi, gogo.  
 GUTIZIA, codicia.  
 GUZTIZ ERE, batez ere, bereziki.  
 HAIK, hareek. Haiek (heiek) aktibo,  
 haik (hek) pasibo. (Ikus Lafitteren  
 «Grammaire Basque. 82. horrialdea).

### H

HALABER, asi mismo, igualmente,  
 también.  
 HASTAPEN, hasera, hasketa, haste,  
 hatsarre, hasburu, comienzo. Ene eta  
 beste zenbaiten ustez, hasiera hitza  
 baztertu egin behar litzateke euska-  
 ra batuan. Alde batetik, -ERA (-KERA)  
 atzikiak sustrai-infinitiboa eskatzen  
 du (bukarea, ibilera, pentsaera; eta  
 ez bukatuera, ibiliera, pentsatuera).  
 Eta, bestetik, hasiera hitza ez da  
 erabiltzen iparraldean eta beste zen-  
 bait lekutan.  
 HAU, honeek. (Hauek aktibo, hauk  
 pasibo).  
 HAUTAKIZUN, alternativa.  
 HEDATU, zabaldu.  
 HEDATZE, zabaltze.  
 HEIN, grado, medida.  
 HERRREN, cojo, boîteux.  
 HERRIALDE, provincia, región.  
 HERSTE, heste, hixte.  
 HERTSAPEN, represión.  
 HERTSATU, oprimido.  
 HEZIKETA, hezketa, hezkuntza. (Ikus  
 hurrengo lerroan HEZKETA).  
 HEZKETA, hezkuntza, educación. Ene  
 eta beste zenbaiten ustez, heziketa  
 hitza baztertu egin behar litzateke  
 euskara batuan. (Ikus goian HASTA-  
 PEN).  
 HITZARMEN, hitz hartze, convenio,  
 compromiso.  
 HOBE EZ, claro está, sin duda, no fal-  
 taba más.  
 HORBEL, hoja seca, feuille sèche.  
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo,  
 horik pasibo).  
 HORREGATIK, horregatio, hola ere.  
 HORREGATIO, hola ere.  
 HOTS, a saber, es decir, esto es.  
 HURAXE, haxe.

### I

IGERTOKI, piscina.  
 IKERTZE, aztertze.  
 ILEGURI, terciopelo, velours.  
 INOZO, apocado, pusilánime.  
 IRAGAN, igaro, pasatu.  
 IRAGARRI, anunciado, annoncé.  
 IRAGATE, igarotze, pasatze.  
 IRAIL, septiembre.  
 IRATZARTZE, despertar, éveiller. (I-  
 TZARTZE, despertarse, s'éveiller).  
 ITAUNDU, galdetu.  
 ITZALI, irauungi, amatu.  
 ITZARRI, esnatu.  
 IXINTZE, digerir. Berba hau Axula-  
 rrek erabiltzen du («Gero», 3. kapi-  
 tulu, 33. atala).  
 IZANKI, izanik. (Ikus Lafitteren «Gram-  
 maire Basque». 232. horrialdea).

### J

JADANIK, ya.  
 JAZARGO, contradicción.

### K

KAUPOLIKAN, Araukoko indiarren bu-  
 ruzagia, Erzilia idazle Bermeotarrak  
 bere «La Araucana» kontatzen due-  
 nez, espainiar konkistazaleen kon-  
 tra burukatu zuena.  
 KIMA, punta de rama. Berba hau la-  
 tinezko cyma (erdaraz cima) hitzetik  
 dator.  
 KINKA, periodo critico.  
 KORSIKAR, Korsika (Córcega) uharte-  
 koa.

### L

LANTZEAN, noizean.  
 LEGEZ, lez, bezala.  
 LEPAHORI, marta, martre.  
 LEPAZURI, garduña, fouine.  
 LIBERA, franco.  
 LURRIN, perfume.

### M

MAIZ, sarri.  
 MENDEKU, venganza.  
 MENTS, falta.  
 MERKATAL, mercantil, comercial.  
 (Merkatari hitzak eta beronen antze-  
 koek, hurrengoarekin berba elkartu  
 bat egiten dutenean, galdu egiten  
 dute azken bokala, eta R kontsonan-  
 tea L bihurtzen da).  
 MINTEGI, seminario.  
 NABARI, evidente, notorio, perceptible.  
 NABARITU, notado, percibido, adver-  
 tido.  
 NABARITZE, notar, percibir, advertir.

### N

ONURAGARRI, provechoso, útil.  
 OREKA, equilibrio.  
 OREN, ordu.  
 ORMA, pared. (HORMA, hielo, glace).  
 ORO, guzti.  
 ORO HAR, en conjunto.  
 OROITZAPEN, recuerdo, souvenir.  
 (OROITMEN, memoria, facultad de  
 recordar). Ikus Azkueren «Morfología  
 Vasca» (69. horrialdea) eta Tournier-  
 Lafitteren «Lexique Français-Basque».  
 OROKOR, general.  
 OSTEAN, ondoan.

### O

OIARTZUAR, Oiartzungoa.  
 OMEN, ei.  
 ONURAGARRI, provechoso, útil.  
 OREKA, equilibrio.  
 OREN, ordu.  
 ORMA, pared. (HORMA, hielo, glace).  
 ORO, guzti.  
 ORO HAR, en conjunto.  
 OROITZAPEN, recuerdo, souvenir.  
 (OROITMEN, memoria, facultad de  
 recordar). Ikus Azkueren «Morfología  
 Vasca» (69. horrialdea) eta Tournier-  
 Lafitteren «Lexique Français-Basque».  
 OROKOR, general.  
 OSTEAN, ondoan.

### P

OZENKI, sonoramente.  
 OZTA, doi, apenas, à peine.

### P

PAGAZI, pago hazi, fabuco, faïne.  
 PARADA, aukera, era, ereti, ocasión.  
 PROLETALGO, proletario. Proletari  
 (obrero), bikari (vicario), notari (no-  
 tario), merkatari (comerciante), se-  
 kretari (secretario), unibertsitari (uni-  
 versitario) eta hauen antzekoek, -GO  
 atzikia hartzen dutenean, galdu egi-  
 ten dute azken bokala, eta R kon-  
 tsonantea L bihurtzen da: Proletalgo  
 (eta ez proletargo), bikalgo, notalgo,  
 merkatalgo, sekretalگو, unibertsital-  
 گو, eta abar. (Ikus Pierre Lhanderen  
 hiztegia).

### S

SOLO, soro.  
 SORMEN, creatividad, facultad creativa.

### T

TXAKUR TTIKI, céntimo.

### U

UDAL, municipio.  
 UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo).  
 UKITU, tocado. (HUNKITU, conmovido,  
 impresionado).  
 UNIBERTSITAL, universitario. (Ikus  
 goian MERKATAL).  
 UR, avellana, noisetie.  
 URRITZA, avellano, noisetier.

### X

XERKATZE, bilatze.  
 ZALANTZA, vacilación.  
 ZAMA, karga.  
 ZARETEA, zarete + a. (Galdeetan, A bo-  
 kala eranstean zaio aditzari).

### Z

ZEINEN, zein.  
 ZELAKO, nofako.  
 ZEREN, ze, pues.  
 ZIEKO, Elciogo.  
 ZILEGI, lícito.  
 ZINEZ, benetan.  
 ZUZEN, derecho, abogacia.  
 ZUZPERTZE, revivir, reavivar.



DANTZATOKI GOXOA      Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
 Astegunez: 7. tatik 10 ra.

**SOINU KOADROFONIKOA**

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

# AZKEN UTOPIZALEAK

Euskal Herrian, dirudienez, systema zientifiko baten azalpean pentsamolde ideologiko zahar bat zabaldurik dago. UTOPIA, zalantzarik\* gabe, gizarte historiko batzuetan aurki daiteke: Platonen «Errepublika» Grezia klasikoan, «Merry England»eko humanista eta filosofo batzuen liburuetan (More-ren «Utopia», Bacon-en «Atlantida Berria»), XIX. mendeko lehen sozialisten artean (Fourier, Owen, Saint-Simon...). Pentsaera honen hastapen\* teorikoak zeintzuk diren esatea ez da erraza, zeren\* gizarte mota desberdin askori lotzen baitzaizkio.

Hala eta guztiz ere, historian zehar, Utopiak bi funtzio ideologiko kunplitzen ditu: Treveristar agurgarri baten Iraultza Teorikoa baino lehenagokoa, eta gerokoa.

Lehen, **funtzio kritikoa eta aurrerakoi** bat betetzen zuen. Garai haietako gizartearen molde edo negatibo bat bezalako zerbait izaten zen. Utopiak ziren ereduaren,\* giza harremanak «giza naturari» (egileak zedukàn gizonaren ideari behintzat...) lotzen zitzaizkion: Gizarte historikoari antitesi bat izaten zitzaion Utopia, eta literaturazko ANTITHESI baten medioz salatzen zituen gizartearen egiazko arazoigabeko akatsak. Funtzio honen ondorio praktikoa, gizartearen aldatzeko mugimenduak besterik ez ziren izaten. Esaterako, lehen kristauen erlijioan, Gramsci-k zioenez, Utopiaren funtzio praktikoa argiro nabaritzen\* da.

Egun,\* batzuek ANTIUTOPIA izenpean ezagutzen dituen jenero berri batek, aintzinako Utopiaren funtzio kritikoa hartu du. (Euskal Herrian, Antiutopiarik UKRONIA deitzen diote beste batzuek...). Orwell, Wells, Bradbury, Huxley eta beste askoren nobeletako metodo edo bidea ez da honez gero Utopiarena. Egungo gizartearen akats eta beldurrak haunditzen dituzte, geroko gizaldiaren eredu ikaragarri bat lortu arte. HYPERBOLE baten medioz egin ohi dituzte beren salaketak.

Baina problema Utopiaren izakera ideologikoan datza,\* eta gure Treveristarrak ongi ikusi zuen: Utopia guztiek Errealitatea alde batera uzten zuten, eta ideari atxikitzen\* zitzaizkion. Errealitatea aldatzeko, kontuan oduki behar dena Errealitatea bera da, eta ez Gizartearen Arkhetiporik. Sozialismoak «Utopiatik Zientziara» egindako saltoan, Historiaren Philosophia bat amildu\* eta haren lekuan Metodologia Zientifiko bat eraiki zen. UTOPIA SOZIALISTAK anarkisten eskuetan gelditu ziren, faxismoaren bandera beltzen artean hiltzeko.

Gero, Utopiaren funtzioa kontsolagarri eta atzerakoi bihurtu zen. Gaur egun, hauxe da Utopiaren funtzio posible bakarra. Zapalkuntza arazoari erantzun faltsu bat ematen dio ideologiaren mailan. Erantzun ideologiko horri «egiazko balore» bat gehitzen dio, eta berarekin zapalkuntza konkretuak estaltzen ditu.

Kakoa non dagoen hobeto ikusteko, kasu bat azter dezagun. Dakigunez, Marxek ez zuen ez gizarte sozialistaren eta ez komunistaren eredurik egin («Gothako programari buruzko kritika» liburuan, oso puntu abstraktu batzuk ezik). Boltxebikeek, 1917.eko urrian, ez zuten aurkitu, Marxen idazkietan, sozialismoa eraikituko gidaririk, Marxek ez baitzuen Utopiarik egin.

Hala ere, hurrengo urteetan, faxismoaren aurrerapean Europako sozialisten optimismoa amildu zuen. Urte

haietako Teoriko Marxisten lanetan utopi kutsu bat dago presente (Lukács-en eta Korsch-en hegelianismo berrian, eta Stalinen hurrengo paradisuaren irudietan, noski...). Utopismo hori, galdutako optimismoa birpizteko tresna bat besterik ez zen izan.

Egungo\* ezkertiarren artean maiz\* erabiltzen diren argudio\* utopiko asko, egoera horren arrastoak dira. Alegia,\* komunist gizartearen Hizkuntza Bakar Bat besterik ez dela erabiliko sarri entzuten dugu. Gizateriaren Bataunak, Kulturarena, eta, noski, Hizkuntzarena eskatzen du.

Hauxe izan zen, jakina, Stalinen argudioa. F. Vallverdú-k (Sociología y lengua en la literatura catalana, Barcelona, 1972) dioenez, argudio hau **a priori** huts bat besterik ez da, oinarririk gabeko utopikeria bat. Zergatik Hizkuntza Bat eta zergatik ez Bilinguismo funtzional —ez diglossiko— bat?

Euskal Herrian utopismo berriaren ondorioak ezagunak ditugu, nahiz desberdinak izan. Hizkuntzaren arloan, bi mota daude:

— «Euskara, Hizkuntza Bakarra lortzeko oztopo bat dugu. Beraz, geure praktikan, ezin dezakegu euskararen alde lanik egin, zeren,\* Sozialismoaren bidetik, Anitza\* desagertu behar baita, Bakarrari lekua uzteko».

— «Euskararen alde lan egitea onhartzen dugu, baina hastapen\* mailan. Euskararen problemarekiko erantzuna Iraultzarekin batera etorriko da. Egun horretararte (noiz arte?) geure praktika beste arazo batzuetarantz zuzendu beharko dugu».

Nahiz eta desberdinak irudi, kasu biak hein\* ideologiko berean (Utopiaren mailan) jarririk daude. Lehenbizikoan, geroko gizartearen irudi-eredu utopiko baten izenean, egungo problema bat uzten da. Bigarrenetan, gaurko kinka\* edo jazargoarekiko\* erantzunak isiltzen dira, arazoa uzten da, Utopia (nahiz eta Iraultza esan...) obratuko den egunerarte.

Hala eta guztiz ere, Historia ez da geltoki\* ezezagunetarantz doan autobus bat. Egungo praktikan eraikitzen da geroa, edo Machado / Serrat-en hitzetan:

«... ez dago biderik,  
ibiltzean egiten da bidea...»

Batzuek ahantzi\* ote dute hau?

GANIX JUARISTI

daude, **dagoz**  
dezagun, **daigun**  
dezakegu, **daikegu**  
dio, **deutso**  
diote, **deutsoc**  
zaizkio, **jako**  
zedukan (zeukan), **eukan**  
zioen, **inoan**, esaten zuen  
zitzaizkion, **jakoan**